



IRUTXULO KO **HITZA**

The background of the entire page is a collage. The central part features a close-up of a hand holding a small flag with red, white, and green horizontal stripes. The hand is wearing a black wristband. In the background, there is a blurred image of a crowd of people at a protest, with a blue Renault car visible. A banner with the word 'korrika' is partially visible at the top. The bottom of the page has large, bold white text on a dark blue background.

24. KORRIKA DONOSTIAN

Euskara eta kirola beti lagun



24.korrika æk
**Euskara
gara**
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



**Donostia
Kiro****la**

donostiakirola.eus

Herri oso bat, tipi-tapa

Korrika badator! Astebete baino gutxiago barru, Atharratzetik (Zuberoa) abiatuko da 24. Korrika, euskararen aldeko bultzada Euskal Herri osoan barrena eramateko helburu argiarekin, Euskara gara lelopean. Donostiara heltzen denerako, hilaren 25erako, ehunka kilometro eginda edukiko ditu, milaka lagunene parte hartzearekin.

Zuk erabaki al duzu dagoeneko non egingo duzun bat Korrikarekin? Euskararen aldeko herri ekimen erraldoia hilaren 25eko goizean goiz sartuko da hirira, ekialdetik, eta goiz osoa hiria zeharkatzen pasatu ostean, mendebaldetik aterako da, eguerdian.

Korrika non harrapatuko duzuen erabakitzen duzuen bitartean, hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzue motorrak berotzeko hainbat irakurgai: Donostiako AEK-ko kideen elkarrizketa, hirian lekukoa hartuko duten eragile batzuen nondik norakoak, Korrika Kulturaren auzoz auzoko egitarauak eta abar. Eta askoz eduki gehiago topatuko dituzue gure webgunean, Korrikaren aurretik, Korrikaren egunean bertan eta Korrikaren ostean.

40 kilometrotan, 152 eragilek hartuko dute lekukoa Donostian, milaka eta milaka lagunene parte hartzearekin. Zenbaki potoloak dira, baina Irutxuloko Hitzan konbentzitutak gaude Donostiaren isla direla zenbaki horiek, tipi-tapa eta modu nekaezinean aurrera doan herri oso baten isla.

Asko eta askotarikoak baitira benetako euskararen hiria josten duten norbanakoak eta taldeak. Horientzat guztientzat egiten dugu lan egunero, zuentzat guztientzat, baita Korrikan ere. Korrikan ikusiko dugu elkar!



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2026ko martxoa

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa eta AEK

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo
.hitza
.eus



«Donostiari motz geratzen zaizkio Korrikaren kilometroak»

AITZIBER OTEGI ETA EIDER HERNANDEZ

Donostiako AEK-ko kideak

Korrika iristeko egun batzuk baino ez dira falta, eta, Donostian, azken prestaketa lanetan murgilduta daude AEK-ko kideak. Ibilbidea aspaldi zehaztuta badago ere, orain lekuko hartzeak, petoen banaketa eta auzoetako egitarauak lotzen ari dira. Aitziber Otegi eta Eider Hernandezek aurtengo edizioaren nondik norakoak eta Korrikatik haragoko erronkak azaldu dizkiote IRUTXULOKO HITZARI.

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

Noiz hasi zineten aurtengo Korrika prestatzen?

Aitziber Otegi (A.O.): Jendeak pentsa dezake Korrikaren aurkezpenarekin hasten garela, baina askoz lehenago abiatzen da lana. Aurreko Korrika amaitu orduko hasten gara hurrengoa prestatzen. Ibilbidea, esaterako, maiatzean nahiko zehaztuta egoten da, eta eskualdeka eragile kopurua ere aurreikusten dugu, ibilbidea ondo antolatzeke funtsezkoa delako. Urtarrilean ibilbidea aurkezten denetik aurrera, lan karga handitu egiten da, baina lana ez da soilik azken hilabeteetako kontua.

Eider Hernandez (E.H.): Komunikazioan agian pixka bat geroago hasten gara. Urria-azaroan aurkezten da Korrika bekaren irabazlea, aurtun *Kaka* antzezlanaren

E
N
B
A
T
A



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus



Donostiako auzoetako euskara batzordeetako kideak, AEK-ko kideekin. **MAITANE ALDANONDO GABILONDO**

“

AITZIBER OTEGI
DONOSTIAKO AEK-KO KIDEA

«Pena da hamar-hamaika egunetara mugatzea, baina egun horietan jende askok sentimenduz bizi du Korrika»

izan dena, eta hortik aurrera aktibatzen gara: kantaren aurkezpena, ibilbidea eta Donostia mailako zabalkundea. Orain, auzoetako azken xehetasunetan laguntzen ari gara.

Zein da jendeak ikusten ez duen lana?

A.O.: Esaterako, Korrika Txikia-ren antolaketa, zalantzarik gabe. Aurten hamazazpi egingo dira Donostian, 36 ikastetxeren parte hartzearekin eta hamabost auzotan barrena. Eskolekin harremanak egin, datak adostu, ibilbideak zehaztu eta segurtasuna bermatzeko koordinazioa egin behar da. Prozesu hori guztia ez da hain ikusgarria, besterik gabe

ikusten delako kalean haurrak korrika ari direla, baina atzean lan handia dago. Korrika Kulturalean ere, auzoetako batzordeek egiten duten lana ikusezina da, askotan.

Zer geratzen da egiteko?

E.H.: Petoen banaketa [barrez]!

A.O.: Bai, azken lan praktikoak: eragile bakoitzari noiz eta non hartuko duen lekukoa zehaztea, peto zenbakidunak banatzea (bina ematen zaizkio eragile bakoitzari) eta azken xehetasunak lotzea. Erabaki handiak hartuta daude; orain dena ondo koordinatzea dagokigu. Pentsatzea baino, lan praktikoagoa egin behar dugu.



ZINKUNEGI OPTIKA

Astelehenetik ostiralera
09:30-13:30 eta 16:00-19:30
Larunbatetan
10:00-13:30

Tel: (+34) 943 420624 · info@zinkunegioptika.com





Korrikaren Parte Zaharreko dendaren aurkezpena.  **ANDREA BOSCH ALFARO**

Zenbat kilometro eta eragile izango ditu Korrikak Donostian?

A.O.: Orotara, Donostiako ibilbideak 40 kilometro fisiko ditu. Aurten erabaki da ez dela gehiago izango «kilometroa erostea», baizik eta «lekukoa hartzea» deituko diogula, eta horri dago-kionez, Donostian, 152 eragilek hartuko dute lekukoa, ezinezkoa izango bailitzateke bakoitzari kilometro bana egokitzea. Gainera,

gero eta eragile gehiagok parte hartu nahi dute, eta Donostiari motz geratzen zaizkio kilometroak.

E.H.: Helburua Korrika ahalik eta parte hartzaileena izatea da. Kilometroetara mugatuz gero, jende asko kanpoan geratuko litzateke.

Asteazken goizean igaroko da Korrika hiritik. Ordutegiak eraginik izango al du parte hartzean?

A.O.: Donostian 08:00etatik 13:00etara bitartean egingo dugu korrika eta, aurreikusi ezin badezaket ere, baliteke espaloietan jende gutxiago egotea, askok lanean edo eskolan egon beharko dutelako. Baina parte hartzaileen aldetik ez dut uste alde handirik izango denik. Enpresak eta ikastolak animatu dira, are gehiago, aurtun lekukoa hartzen dutenen artean profil horiek nabariagoak dira.

E.H.: Ordutegi hori tokatu izana aukera ere bada. Euskaltegi-ko ikasleak kalera ateratzeko aitzakia ederra da, bestea beste. Agian, ikusle gutxiago egongo da, baina parte hartzean bestelako dinamikak sor daitezke, Korrika asteburuan pasatzen denean egin ezin direnak.

Nolako harrera izan du aurtengo Korrikak?

E.H.: Orokorrean, oso ona. Sare sozialetan eta auzoetan giroa nabaritzen da, eta kantak ere harrera oso ona izan du, aukeraketa ona izan da. Eragile asko animatu dira jarduerak antolatzen.

Auzoetan egitasmoak antolatu dituzte Korrikaren testuinguruan?

A.O.: Auzo bakoitzak bere Korrika Kulturala antolatzen du, Korrika hasi aurretik edo ondoren. Martxoaren 14a, larunbata, nahiko potentea izango da auzo guztietan. Parte Zaharrean, esaterako, Korrika Txikia eta haurrekin jolasak egingo dira, baina baita helduentzako ekintzak ere. Altxa,

OLIYOS
TABERNA JATETXEA

Erregezaintza, 4, Donostia · Tel.: 943-21 49 89



Amara... bakoitzak berea izango du, eta auzolana da oinarria. Korrika denon artean egiten da, eta auzoetako eragileek eta boluntarioek egiten duten lana eskertzekoa da.

Korrikak zer suposatzen du AEKrentzat, diru biletaz harago?

A.O.: Euskarari ikusgarritasuna eta babes soziala ematen dizkio. Pena da hamar-hamaika egunetara mugatzea, baina egun horietan jende askok sentimenduz bizi du Korrika. Aurten, gainera, hamabigarren egun bat egitea proposatu dugu AEKkoek, Korrikaren uholde hori aprobetxatzeko eta euskarari duen garrantzia eta bultzada emateko.

E.H.: Euskararen aldeko mugimendua pizteko aukera da. Euskal Herri osoan jende uholdea ikustea zirrargarria da. Gero eta handiagoa da, baina erronka da energia hori urte osora zabaltzea. **Lehen aldiz parte hartu zenutenetik, nola aldatu da egitasmoa? hartzean?**

A.O.: 1997ko Korrika dut gogoan,

AEKn lanean ari nintzela egin nuen lehenena. Orduan, ez zeukan gaur egungo dimentsiorik; pankartaren atzean jende gutxi ginen. 30 urte pasatu dira jada, eta, gaur egun, parte hartzea eta eragileen kopurua izugarri hazi dira. Dimentsioan dago alde handiena, baita, noski, horrek dakarren lanean ere.



EIDER HERNANDEZ
DONOSTIAKO AEK-KO KIDEA

«Gero eta handiagoa da, baina erronka da energia hori urte osora zabaltzea»

E.H.: Nik pandemian bizi izan nuen lehenengoa AEKn, eta testuingurua guztiz bestelakoa zen. Hala ere, azken urteotako hedapena harrigarria da: pozgarria batetik, baina tristea

bestetik, arazoek hor jarraitzen dutelako.

Korrikaren indarra urte osora zabaltzeko zer behar du Donostiak?

A.O.: Administrazioaren laguntza. Ez soilik udalarena, administrazioarena, oro har. Euskara ikasteko laguntzak badaude, baina erabilera sustatzeko neurri sendoagoak behar dira. Jende askok badaki euskara, baina guk behar duguna da dakiten horiek hizkuntza erabiltzea. Enpresen inplikazioa ere beharrezkoa da. Euskaltegiez, euskalgintzaz eta herri mugimenduko elkarteek harago, benetan baliabideak dituztenek zer edo zer egin dezaketela iruditzen zait.

E.H.: Irakaskuntza funtsezkoa da, eta beti aldarrikatuko dugu doakotasuna ezinbestekoa dela euskara denok eskuragarri izateko, baina, euskaltegietatik kanpo, babesak behar dugu. Hiztunak eta arnasmuneak behar ditugu. ●

Trikua Harri
taberna *sjatetxea*

Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com

LAIA
ABOKATUAK

Aurrera korrika !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

HERRI AMETSA IKASTOLA

www.herriametsa.eus

DONOSTIA 943 39 35 20
Guardaplata bidea, 28

Ikastola txikia
Familia handia

KORRIKAREKIN BAT!!

23. korrika
Irundik Bazarat

Korrika Kulturala



2024ko Korrika Kulturalako jarduera bat. © ARATZ GARCIA ZALDUA

AIETE

Martxoak 18, asteazkena

17:30 Aieteko korrika ibilbidea sortu, haurtxokoa.

Martxoak 20, ostirala

17:30 Korrikako kartoizko furgoneta sortu, gaztelekuan.

Martxoak 21, larunbata

17:00 Korrikako pankarta eta Korrikako ibilbidea, Aieteko parkean.

Martxoak 24, asteartea

17:30 Korrikarako banderak sortu, haurtxokoa.

Martxoak 27, ostirala

17:30 Auzo argazkia, Hiru Damatxon.

18:00 Aliritzi erromeri parte hartzailea, Hiru Damatxon.

Marxoak 28, larunbata

12:00 Sagardo kata, Katxolan.

ALTZA

Martxoak 18, asteazkena

18:00 Korrikaren ibilbidea ezagutzen, gaztelekuan.

18:00 Ibilbide eta egitarauaren aurkezpena, trikitilari eta pandero joleak eta erromeria gidatua, Casares K.E.-n.

19:00 Mister Eleizegi, Tomasene K.E.-n.

Martxoak 21, larunbata

17:30 Petoak eta apaingarriak egin, Josu Artetxe plazan.

19:00 Plaza apaindu, Josu Artetxe plazan.

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa



DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22
943-21 80 88 · antigua@aek.eus

AMARA BERRI AEK

Ordoñez, 7 (ARCCO parean)
943-47 45 92 · amara@aek.eus

GROSEKO IRRINTZI AEK

Iztueta, 3, behea
943-32 76 11 · gros@aek.eus

16:00-20:00 Futbol torneo patioan, Josu Artetxe plazan.

17:00 Familiarekin Jolasean: *Haurtxokoan ere euskararen alde!*, haurtxokoan.

Martxoak 22, igandea

14:30 Korrikaren aldeko bertso bazkaria, Bizargorri tabernan: Manu Goiogana eta Mantxi.

Martxoak 24, asteartea

10:00 Korrika gaztea.
18:00 Korrikako dortsal tailerra, gaztelekuan.

Martxoak 25, asteazkena

17:30 *Haurtxokoa korrikarekin bat!* euskaraokoa, haurtxokoan.
19:00 Laburbira, Tomasene K.E.-n.

Martxoak 27, ostirala

19:00 Herrera kantuz.
21:00 Afaría Euskal Giroa elkartean.

Martxoak 28, larunbata

16:30 Eskulanak eta jolasak, Harrian.

AMARA BERRI

Martxoak 13, ostirala

16:30 Umeentzako peto tailerra, Olaeta plazan.

Martxoak 23, astelehena

10:00 *Gogoratzen naizenetik marrazten dut* liburuaren aurkezpena, Amara Berri AEK euskaltegian.
18:00 *Basqueland*: hitzaldia eta garagardo dastaketa, Amara Berri AEK euskaltegian.

Martxoak 27, ostirala

09:00 Ihesgela (12-14 urte bitarte), Ikasbide elkartean.
18:00 *Mihiluze* jokoa eta kontzertua, Ilunki kultur elkartean.

AÑORGA

Martxoak 13, ostirala

Ingo al diñagu.

Martxoak 14, larunbata

Kontzertua.

Martxoak 18, asteazkena

Jarduerak Amassorrainen.

Martxoak 22, igandea

Dantzari Txiki eguna.

Martxoak 28, larunbata

Sagardo eguna, Harrobiaren plazan.
11:00 Erraldoi eta buruhandiak eta Añorgako artisauen azoka.
12:00 Sagardo dastaketa, almute dantza eta Korrika lekukoei omenaldia.
14:30 Bazkari herrikoia.
16:00 Perkusio tailerra eta galdetegia sariak.
17:00 Alitziri erromeria.

EGIA

Martxoak 13, ostirala

Goizean Horma irudia, Plaza Haundin eta Lauaizetan.

Elkarlana



XXI mendean, elkarlanean aritzea da komunitate berdinzalegoak, oparagoak eta jasangarriagoak eraikitze gure modua.



Asociación SEI Elkartea

1.200.000 pertsonako taldea gara, eta sinesten dugu badela *komunitatea, enpresa, kultura, aurrerapena eta banka egiteko* beste modu bat.



Bada beste modu bat

18:00 Musika entzunaldia, Egia Recordsen.

Martxoak 14, larunbata

19:00 Herri kirolak, Katan.

Martxoak 15, igandea

18:30 Bakarriketak, Bukowskin.

Martxoak 16, astelehena

18:00 *Euskararen kontrako oldaraldia* hitzaldia, Teila Fabrikan.

Martxoak 19, osteguna

21:30 Bertso afaria Arrano elkartearen.

Martxoak 21-22, larunbata eta igandea

18:30 *Bi baso bat ur antzerkia*, kultur etxean.

Martxoak 25, asteazkena

19:00 *Gurpilak* literatur solasaldia, kultur etxean.

Martxoak 9-29

Gordegiaren erakusketa, Teila Fabrikan.

GROS

Martxoak 14, larunbata

11:00 AEK-ko ikasleen Korrika jolasa, AEK-ren egoitzan.

14:00 Basurde jana Marruma elkartearen.

Martxoak 15, igandea

18:00 Xak-en kontzertua, Marruma elkartearen.

Martxoak 22, igandea

16:30 Surf ikastaroa (euskaraz doan), haurrentzako jolasak eta afari merienda, Zurriola hondartzan.

Martxoak 24, asteartea

19:00 *Sehaskatik mendiko esplorazioa* proiektzioa eta solasaldia mendizaleekin, Okendo Kultur Etxean.

Martxoak 25, asteazkena

16:30 Karaokea eta tailerrak Txofren.

18:30 Zuhazti eskolaren dantza emanaldia Txofre plazan.

Martxoak 27, ostirala

18:00 Bertso saioa, Marruma elkartearen: Peru Aiertza eta Unai Gaztelumendi. Ondoren, trikipoteoa.

INTXAURRONDO

Martxoak 21, larunbata

17:00-18:15 Haurtxokoa Korrikarekin bat: familiekin lekuko prestaketa Intxaurren Kultur Etxean.

17:00 *Korrikondo*: Ilargi txaranga Sagastiederretik hasita auzoko tabernetan zehar.

19:00 *Korrikondo*: Intxaurrendoko gazteen arteko erronkak.

Martxoak 23, astelehena

19:30 Kantujira Larrotxenetik hasita, Intxaurren Zaharrean zehar.

Martxoak 24, asteartea

17:00 *Korrika badator: Haurtxokoa* apaintzen Intxaurren Kultur Etxeko haurtxokoa.



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Eman lekukoa euskarari



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-21 99 07



legazpi6@legazpi6.eus

17:30 *Korrikarako dortsal eta lemak sortzen* Intxaurren Kultur Etxeko gaztelekuan.

18:30 Plaza dantzak auzoko txistulariekin Bernart Etxepare plazan.

Martxoak 25, asteazkena

08:30 Diana: txistulari eta trikitilariak auzoan zehar.

17:30 Gaztekorrika eta merendola Intxaurren Kultur Etxean.

18:00 Film emanaldia eta zuzendariarekin solasaldia Intxaurren Kultur Etxean: *Ombuaren Itzala*.

Martxoak 26, osteguna

19:00 Literatur solasaldia Intxaurren Kultur Etxean: Goiatz Labandibarren *Eresia*.

Martxoak 28, larunbata

14:00 Korrika bazkaria: barrikotea Zulo Zahar elkartearen.

LOIOLA

Martxoak 21, larunbata

10:00 Peto tailerra, Eliza kalean.

14:00 Bazkari herrikoia, Eliza kalean.

17:00 Kontzertua, Eliza kalean: Andoni Ollokiegi.

PARTE ZAHARRA

Martxoak 13, ostirala

19:00 Herri kirolak, Plaza Berrian: Jarana Intxaurren Kultur Etxean.

23:59 Korrika karaokea Herria tabernan.

Martxoak 14, larunbata

12:30 Erraldoi eta buruhandiak Bretxatik.

14:00 Bertso bazkaria Kresalan:

Peru Aiertza eta Andoitz Urdapilleta.

18:00 KDP txaranga, Kresalatik hasita.

22:00 Kontzertua, Guardetxean: Malko.

Martxoak 21, larunbata

12:00 Kantujira, Plaza Berritik hasita.

19:00 *Korrika Kantuz* emanaldia, Kresalan.

Martxoak 25, asteazkena

11:00 Mutxikoak, Bulebarreko kioskoan.

13:00 Poteo musikatua, Plaza Berritik hasita.

16:30 Haurrentzako jolasak eta txokolate jana, Zuloaga plazan.

Martxoak 26, osteguna

19:00 Oldarraldiaren inguruko hitzaldia Kriptan, Bageraren eskutik.

SAN MARTIN

Martxoak 24, asteartea

17:30 Bingo Loretua Xabier Zubiria plazan, Mimikuren eskutik.

18:30 Txalaparta Xabier Zubiria plazan, Zurartean Txalaparta Elkartearen eskutik.

19:00 Eskola Dantza Taldearen kalejira, Zubiri plazatik.

20:00 Triki-bertso poteoa Aiert Ordoñez eta Peru Aiertza bertsulariekin, Manterola kaletik abiatuta.

TXOMIÑENEA


Martxoak 25, asteazkena

17:30 Peto tailerra, Arteleku plazan.

18:15 *Eutsi euskarari!* auzo argazkia, Arteleku plazan.

19:00 Txokolate jana, Arteleku plazan.

Egitaraua guztiak
eta informazio osagarria
gure atal berezian:



CACTUS
T A B E R N A

943-05 41 67

PLAZA BERRI · EGIA



#geroa
2030

Gora Korrika!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66

axular
lizeoa

24.korrika *aek*
**Euskara
gara**



aek
24.korrika

Donostian

MARTXOA

**IRUTXULO KO HITZAREN
kilometroa**

11:45 → Zurriola hiribidea
(Zmare parean)



1	BIDEBIETA	07:43
2	HERRERA-ALTZA	07:56
3	HERRERA	09:20
4	INTXAURRONDO	09:30
5	EGIA	09:57
6	LOIOLA	10:20
7	MARTUTENE	10:33
8	LOIOLA	10:46
9	LOIOLAKO ERRIBERA	10:54
10	AMARA BERRI	11:00
11	AMARA	11:22
12	ERDIALDEA	11:26
13	GROS	11:33
14	PARTE ZAHARRA	11:55
15	ERDIALDEA	12:09
16	ANTIGUA	12:19
17	AÑORGA	12:41

K 25 Asteazkena

korrika TXIKIA

Donostian

Intxaurreondo

2026/03/18 · 10:00-12:00

Intxaurreondo ikastola
Intxaurreondo Hegoa
The English school
La Asuncion

Bidebieta

2026/03/24 · 10:00-11:00

Herri Ametsa
Lasalle
Mendiola

Egia

2026/03/24 · 10:00-12:00

Aitor Ikastola
Maria Reina eskola
Mundaiz ikastetxea

Amara

2026/03/24 · 10:15-11:30

Amara Berri ikastetxea

Altza **Korrika Gaztea**

2026/03/24 · 10:00-12:30

San Luis La Salle
HerriAmetsa
Altza BHI
Bideberri

Loiolako Erribera

2026/03/24 · 15:30-16:00

Ikasbide

Zubieta

2026/03/25 · 10:00

Landaberri

Altza txikia

2026/03/25 · 11:00-13:00

Harri Berri
Oleta Ikastetxea
Altza Herri Ikastetxea
Herrera Ikastetxea

Añorga

2026/03/25 · 15:00-16:00

Amassorain

Zubieta

2026/03/25 · 16:00-16:30

Zubieta LHI

Gros

2026/03/25 · 15:30-16:30

Zurriola
Zuhaizti
Presentación de Maria

Parte Zaharra

2026/03/25 · 15:45-16:15

Orixek ikastola

Aiete

2026/03/27 · 10:00-11:00

Aiete ikastetxea

Loiolako Erribera

2026/03/27 · 11:00-11:30

La Salle

Antigua

2026/03/27 · 10:30-12:00

Jakintza ikastola
Elaienea ikastetxea
Santo Tomas lizeoa
Ekintza ikastola
Ibai ikastola
Igeldoko Ikastola

Aiete

2026/03/27 · 14:45-16:00

Axular Lizeoa

Igeldo

2026/03/27 · 15:00-16:00

Igeldo HLHI

Ibaeta

2026/03/27 · 17:30-18:00

Ibai ikastola

Gogoratzen al duzue?

Dagoeneko bi urte pasatu dira azkenekoz Korrikak Euskal Herria zeharkatu zuenetik. Euskarak orduan zituen bezainbeste erronka edukitzen jarraitzen du (gutxie-
nez), eta denok batera indarra egiteko aukera dugu egunotan, berriz ere. Beraz, badakizue: 2024ko Korrikako argazkiak ikusi, gogoratu orduan bizitakoak eta hartu indarra, Korrika badatorrela!







«Polita litzateke palestinarrek eramandako lekuko kolektiboa ikustea»

DONOSTIA PALESTINA HERRI EKIMENeko KIDEAK

24. Korrika Donostiatik igaro baino egun batzuk lehenago, Donostia Palestinako kideak komunitate palestinarrekin dabiltza elkarlanean euren egoera ikusgai egiteko. Aurtengo Korrika lehenengoa izango da kolektiboarentzat, eta Parte Zaharrean hartuko dute lekukoa.

📷 Jon Iriarte Mendiola

Zer da Donostia Palestina ekimena? Nortzuk osatzen duzue?

Donostia Palestina taldea 2024ko urtarrean sortu zen, Palestinan gertatzen ari zen genozidioaren aurrean antolatzen hasi, eta gero eta kide gehiago batu ziren gurea; egiten genituen deialdi nahiz ekintzek irismen handiagoa lortu, eta jende gehiago elkartzea ekarri zuten. Horrela hasi ginen eta gaur arte gabiltza lanean.

Oso jende ezberdina biltzen gara taldean, jatorriak eta belaunaldiak ere askotarikoak dira. Esaterako, euskal herritarrek bagaude, baina baita ere irlandarrak, norvegiarrak... Espainiatik etorritako jendea ere bada.

Hostelan
BY HOSTELERÍA GIPUZKOA

Aurkitu ostalaritzan
gustuko dituzun
lanak.

www.hostelan.com

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Taldean bi astean behin elkartu ohigara. Eltze jotzeak egiten hasi ginen, maiztasunez, hilabetea behin antolatzen dugu. Batez ere, protesta egin izan dugu, baina baita kultur arloko ekimen batzuk ere.

“

«Gizarte arloko adierazpen asko daude Korrikan, eta Palestinak ere hor egon behar zuela uste genuen»

Bestetik, Donostian lanean dabiltzan beste taldeekin ere biltzen gara elkarlanean, BDZ mugimenduarekin, adibidez. Horrez gain, beste talde batzuekin batera, Gernika Palestina sareko kide ere bagara. Palestinarekin Elkartasuna kolektiboarekin ere hainbat jarduera egin ditugu.

Palestinaren egoerari buruzko zein irakurketa egiten duzue gaur-gaurkoz?

Zoritxarrez, su etenaz geroztik, egoera gutxi aldatu da. Aldaketak izan dira, baina egoera oso larria da egun. Genozidioak aurrera jarraitzen du eta Zis-jordania lurraldea okupatzeak gatazka areagotu du. Israeldarrek Palestinako lurrak bereganatzeko dinamika orokortu egin da. Gainera, nazioarteko erantzuna ez da izaten ari beharko lukeena.



Donostia Palestinak hirian antolatutako eltze jotzeetako bat. **JOSEBA PARRON**

Horregatik, gu gizarte zibiletik erantzuten saiatzen gara. Baina, tira, hor ardura dutenek ere egin beharko lituzkete bestelako ekin-tzak, ematen ari ez diren pausuak eman beharko lituzkete. Munduan ez dago nazioarteko legedia babesteko bermerik, sionistek eta israeldarrek nahi dutena egiten jarraitzen dute, inpunitate osoz.

Euskal Herritik urrun egonagatik ere, nola bizi duzue gatazka?

Urrun gaude, baina askotan diogu: lehen, telebistan edo sareetan ikusten genuen zerbait zen; orain, Palestina hemen ere badago, errefuxiatu asko iritsi dira. Guk,

gure taldetik, bertan diren zenbait palestinarrak lagundu diegu lehen urratsak egiten, zentzu horretan ere egin ditugu dinamikak. Donostian, jada bada komunitate nahiko garrantzitsu bat, badaude Gazatik etorri diren familia dezente. Larrialdi programen bitartez iritsi dira bonbardaketetan zauritutako haurrak; errefuxiatu estatusarekin hemen bizi direnak ere badira. Jada ez da urrun ikusten den errealitate bat, hemengo egunerokotasunean ere eragina du, eta nabari da.

Zuen lehenengo parte hartzea da Korrikan? Zerk animatuta hartu duzue kilometroa?



LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia

☎ 943-55 58 46
616-28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA
ERENOTZU
HERNANI

Zatoz eta gozatu!
Maiatzak 3 arte irekita



Donostia Palestinak Korrikan parte hartzen duen lehen aldia da, bai. Korrikaren moduko ekimen batean Palestinaren afera ikusgarri egin nahi genuen. Gizarte arloko adierazpen asko daude Korrikan, eta Palestinak ere hor egon behar zuela uste genuen. Aurreko aldian jende askok Palestinako banderak eraman zituen, Korrika-ko furgonetan ere jarri zuten bat. Guk Donostian ekarpena egiteko beharra ikusten genuen, alde bate-rik, euskarari eta Korrikari, noski; baina, baita ere, Palestina presente egotea nahi dugu hirian, ahanztu-
 ran erori ez dadin. Eta Korrika hi-
 ritik pasatuko den ekimena denez, bertan egon nahi genuen.

Zein da zuen Korrikako ibilbidea?

San Juan kaletik Sarriegi plaza-
 ra arte egingo dugu gure tartea. Korrikaldiaz gain, egunean bertan zerbait egin nahiko genuke eta egitaraua osatu.

Lekukoa nork hartuko du? Zein balio sinboliko du lekukoa era- mateak?

Argi duguna da palestinarrak

eramatea nahi dugula, beraiek izan dezaten protagonismoa. Donostian dauden hainbat familiarekin hitz egiten ari gara, ea nor edo nortzuk izango diren galdezka. Polita litza-
 teke palestinarrak eramandako lekuko kolektiboa ikustea.

“

«Giza eskubideen alde dagoena hizkuntza eskubideen alde ere badago»

Azkenean, Palestinari presen-
 tzia ematean datza ekintza. Herri honentzat hain garrantzitsua den ekimenean beraiek ere presentzia izatea eta familia horiek presente egotea aitortza da. Korrikaren moduko ekimen garrantzitsu ba-
 tean Palestinari ikusgarritasuna eman nahi diogu.

Palestinaren aldeko borrokak eta euskarak badute hartu-emanik?

Giza eskubideen alde dagoena hizkuntza eskubideen alde ere badago. Borroka guztiak lotuta daude, kasu honetan internazio-
 nalismoa, baina, baita ere, gizarte zein hizkuntza aldarriak. Esku-
 bideen bermatzea borrokatzen denean, guztia biltzen da. Korrika hainbat eta hainbat aldarriren erakusleho da, ez soilik euskara-
 ren aldekoarena; euskarak biltzen ditu beste borroka guztiak.

Zeintzuk dira zuen etorkizuneko asmoak?

Hilabeteko lapiko jotzeak egiten jarraituko dugu, hurrena gaur bertan izango da, Bulebarrean. Bestetik, elkarteak sortu genuen, ofizialki forma juridikoa izateko. Horrekin, diru laguntzetarako erraztasunak izan eta beste zenbait ekimenetarako pausoak formalizatu nahi izan ditugu. Protestarekin jarraituko badugu ere, haratago doan zerbait landu nahi dugu. Egunotan dugu lan bilera, ekimena nondik bideratu hausnartzeko, eta zein jarduera egin daitezkeen ikusteko. ●

Tel.: 943-27 97 96

Bazkariak

KATA
egia

Gora Korrika!



www.jobilan.eus

Teilatuak.
Fatxadan isolamendu termikoa...
Pintura barnean eta kanpoaldean.
Lan koordinaketak.

620 70 69 36

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com

Euskara gara
24.korrika

TAMAYC
 DONOSTIA 1914

112 urte | www.papeleriatamayc.com | Legazpi kalea 4



«Euskara ikastea eta euskaraz janztea zor diogu euskarari»

IDOIA IBERO ETA AINHOA AGIRREZALDEGI

Iraleko irakasleak

Irakasleak euskalduntzeko eta euskal kulturaren murgiltzeko programa da Irale, eta bertako irakasleak dira Idoia Ibero Urbietta eta Ainhoa Agirrezaldegi Errekondo. Lanean hasi zirenetik, saiatu dira Korrika eta horrek esan nahi duena ikasleei helarazten, eta aurtengoa berezia izango da haientzat. Izan ere, Irale itxi egin behar dute.

📷 Asier Gonzalez de San Pedro Abarrategi

Noiztik hartzen du parte Iralek Korrikan?

Idoia Ibero Urbietta (I.I.U.):

Irale eraikin desberdinetan egon da, baina hasiera-hasieratik hartu izan dugu lekukoa Korrikan. Beti egon nahi izan dugu, AEK-ri zor zaiona emateko, besteak beste.

Nork eraman behar du lekukoa?

Ainhoa Agirrezaldegi Errekondo (A.A.E.):

Oraindik ez dugu adostu. Kilometroa irakasle eta ikasleen artean erosi dugu, eta uste dugu irakasle eta ikasle banak eramatea polita izango dela. Ahalik eta parte hartzaileena eta sinbolikoen izatea nahi dugu.

Non duzue kilometroa?

I.I.U.: Herreran. Kilometroarekin jokatu dugu. Gure ikasleak urrutitik datozenez, goizeko zortzie-



Maldak malda, Altza korrika



2024ko Korrika Martutenen, artxiboko irudi batean. © AEK



IDOIA IBERO URBETA
IRALEKO IRAKASLEA

«Proiektu bat abiatu genuen, eta hori amaituko dela pentsatzeak negargura apur bat ematen du»

tan egoteko ez zuen denborarik ematen; orduan, ohorezko tokia lortu dugu. Izan ere, azken urteotan zaila izan da ikasleak gurera etortzea.

A.A.E.: Iraleren azken urtea izanik, talde osoak parte hartzea nahi genuen. Korrika euskararen biziberritzerako garrantzitsua da,

eta irakasleak ere garrantzitsuak dira horretarako.

Orokorrean, zenbat ikasle eta irakasle bildu ohi zarete?

I.I.U.: Eskola aurrean hartu izan dugu, eta ez gara asko bildu izan. Baina egia da, irakasleen ingurukoak batu izan direla gurekin korrika egitera. Iralekoak, guztira, hoguei inguru bildu ohi gara.

Aurten hori baino gehiago izatea nahi duzue, ezta?

A.A.E.: Bai, eta festa bat izatea nahi dugu. Guk Korrikaren festa eta aldarrikapena beti bizi izan ditugu, baina ez gure kilometroan. Aurten, zortea izango dugu, lanketa hori ikasleekin egingo dugulako gure kilometroan.

Zer da zuentzat lekukoa hartzea?

I.I.U.: Emozioa. Beti da berezia, eta sinisten dugun zerbaiten parte

izatea da. Oraindik, XXI. mendean, lan hori egiteko beharra dago, baita zabaltzeko beharra ere.

A.A.E.: Korrikak gauza asko sinbolizatzen ditu. Korrikaren ibilbidea ikusten duzu, eta askotan, zoritxarrez, ezagutzen ez ditugun herri txiki pila bat daude. Korrikaren Euskal Herriko mapak sinbolizatzen du gure lurra, aha-egin bat, euskara egoera desberdinetan egotea eta euskararen egoeraren biziberritze bat egin behar dela. Hori guztia helarazi nahi diegu ikasleei. Horregatik da garrantzitsua gure kilometroa haiekin bizitzea.

Zein harreman duzue euskararekin?

I.I.U.: Gure bizitza, harremanak egiteko gure arma... Dena da.

A.A.E.: Ni euskara naiz. Euskarak



Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia

943-42 63 62

www.restaurantegandarias.com





AINHOA AGIRREZALDEGI ERREKONDO
IRALEKO IRAKASLEA

«Euskararen egoeraren biziberritze bat egin behar dela sinbolizatzen du Korrikaren Euskal Herriko mapak»

ardazten nau, eta txiki-txikitatik da nire jolas eremua eta eremu soziokulturala.

Aipatu duzue Iraleren azken urtea dela. Zeintzuk dira Irale xteko arrazoiak?

I.I.U.: Zoritxarrez, sinistuta gaude tituluaren jabe izateak ez duela nahikoa bermatzen euskararen jakitun izatea. Norberak bere presaketan eta hizkuntza janzten egin behar duen lan hori ez da sekula amaitzen. Iralek oraindik hezkuntzari eskaintzen dion hori amaitu gabeko lan bat dela iruditzen zaigu. Garai berriak direla diote, baina

beharrak dirau. Iruditzen zaigu euskara ikastea eta euskaraz janztea zor diogula euskarari.

A.A.E.: Kontua da baliabide guztien premia dagoela, eta momentu honetan badirudi ez dagoela aski baliabide bi eremuei erantzuteko: irakasleen formakuntzari eta ikasleekin egin nahi den hizkuntza kudeatzaileen bidezko lanketari. Guri, aldiz, biei eustea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Norbanakoarenak ez diren gabeziei eta sistematiakoak direnei dagokienez, sistemak berak eman beharko lizkieke irakasleei baliabideak horretan janzteko. Gainera, gero haiek dira euskara eta euskal kultura helaraziko dizkietenak ikasleei. Askotan, orde, irakasle lanetara ez dira horiek guztiak landuta iristen. Oro har, gizartean asko gutxitu da euskara eta euskal kulturaren ezagutza, eta gizarte osoak duen gabezia bat da, ez soilik ikasleena, gutxitutako hizkuntza batean bizi garelako.

Zer ondorio ekar ditzake Irale ixteak?

I.I.U.: Oso hankamotz geldituko da hezkuntzan dabilzan profesionalen formazioa. Galera handia iruditzen zaigu.

A.A.E.: Hemengo ikastaroak haien lanorduetan egiten ziren, irakasleen liberazio jakin batzuekin, iruditzen zitzaigulako bizi garen erritmoarekin eta noizbehinkako ikastaroekin ez dagoela euskararen murgiltzerik, ezta euskal kultura ezagutzerik ere. Horretarako, bere denbora eta bere espazioa eman behar zaio. Euskararen inguruko jardunaldi guztietan aldarrikatzen da jendeak denbora eta espazioa behar duela, eta guk ere irakasleek denbora eta espazioa izatea nahi dugu, formakuntza horretarako.

Altzan egonik, Iralek auzoari eragin diola uste duzue?

I.I.U.: Urteotan, auzo honi arnasgune bat eman diogu. Duela urtebete edo, auzoa ezagutze aldera, proiektu bat abiatu genuen, eta hori amaituko dela pentsatzeak negargura apur bat ematen du. ●

MariaReinaEskola

Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

Gora Korrika!

Ametzagarria 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**





2024ko Korrikan Olatz Balda Sagarzazu kazetariak eta Irati Azpeitia Latorre hitzakideak hartu zuten gure lekukoa. AEK

IRUTXULO KO HITZA ere Korrikarekin bat

Hemen da Korrika, euskararen aldeko herri ekimen erraldoia. Martxoaren 25ean pasatuko da Donostiatik, eta, noski, IRUTXULO KO HITZAK parte hartuko du. Grosen hartuko dugu euskararen lekukoa aurtan; han espero zaituztegu!

Urteko egun guzti-guztietan gabiltza euskararen alde lan egiten IRUTXULO KO HITZAN, hori delako gure izateko arrazoia eta eguneroko jardunerako oinarria. Hori dela eta, beti hartzen dugu euskararen lekukoa Korrikan, eta aurtan ere hala egingo dugu, noski.

Hain zuzen ere, martxoaren 25eko goizean ibiliko da Korrika Donostiako kaleetan barrena tipi-tapa, eta Grosen iritsiko da Euskal Herria zeharkatzen ari den lekukoa gure eskuetara: Zurriola hiribidean hartuko dugu, 11:45ean,

Bagera Euskaltzaleen Elkartearen eskutik. Horrela, lantaldeko kide batek eta Ines Arrue Unanue harpidedun eta kolaboratzaileak hartuko dute lekukoa, IRUTXULO KO HITZAREN izenean.

Gure parte hartzea, ordea, ez da horretara mugatuko, egunaren jarraipen informatibo berezia egingo baitugu. Ohiko legez, Korrika Donostian barrena jarraituko dugu egunean bertan, kalez kale, eta gure webgunean zein sare sozialetan izango duzue argazkiak eta bideoak ikusteko aukera.

Zozketa eta eskaintza bereziak

Egunero-egunero euskararen alde lan egiten jarraitzeko, ezinbestekoa dugu zuen guztien laguntza eta babesa, eta, hori dela eta, IRUTXULO KO HITZAREN harpidetza merkeago eskainiko dugu 24. Korrikak irauten duen bitartean: 20 euroren truk, zure aletxo jarri dezakezu Donostiako euskal hedabideak aurrera egin dezan. Horrez gain, Hitzakideentzako zozketa bereziak egingo ditugu Korrikak irauten duen bitartean AEK-rekin elkarlanean, Korrikako materiala zozkatuko baitugu.

Badakizue, beraz: bizi eta jarraitu Korrika IRUTXULO KO HITZAREKIN batera, denak espero zaituztegu!



Euskal gizartea *atzo*
Euskal gizartea *gaur*

San Telmo Museoa

Lehen Korrikarako
Mendiburuk sortua, gurean
gaur denontzat zaindua



STM
San Telmo Museoa



DK
donostia
kultura

Zuloaga Plaza, 1
20005 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus



KORRIKA BADATOR!

Groseko ere euskararen alde!

**GROSEKO
INDARRA
SURF** ESKOLA
TALDEA

☎ 695-75 44 71

🌐 grosekoindarra.com



Izan 24.Korrika laguntzailea

Ekin Korrikari!

Egin zaitez laguntzaile
korrika.eus-en eta
AEKren euskaltegietan.

15 euro-ren truke, zozketetan
parte hartuko duzu eta
abantailak izango dituzu!

Eta garrantzitsuena:
Korrikaren parte
izango zara.



korrika.eus

